

DIRU-ITURRIAK

Bezeroek gure eskaintzagatik zenbat eta nola ordaintzeko prest dauden jakitea garrantzitsua da. Atal honetan, hori azalduko dugu. Izan ere, negozio-proposamena ondo diseinatzeak eta modu egokian abian jartzeak, diru-sarrerak eta etekinak lortzea ahalbidetuko digu.

Gure kasuan irabazi iturri nagusia gure produktuaren salmenta izango da, hau da, tuparren salmenta. Irabazi-iturri hau aktiboen salmenta delakoa da, fisikoa den produktu baten eskubideak saltzea, hain zuzen ere. Horrela, produktua erosten duen bezeroak askatasun osoz erabili ahal izango du.

Hiru tamainako tuperrak diseinatuko ditugu eta bakoitzak prezio ezberdin bat izango du; txikienak 50 euro, ertainak 100 euro eta handienak berriz, 150 euro. Gainera, 2000 unitate diseinatuko ditugu eta horiek gure web orrian saltzen jartzeaz gain, Elorrioko Eroskirekin, Carrefourrekin... negoziatuko dugu beraien komertzioetan saltzen jartzeko; 800 unitate tamaina ertainekoak, gehien salduko direla uste baitugu, 600 unitate tamaina handikoak eta beste 600 unitate tamaina txikikoak. Produktu bakoitza sortzeagatik guk ordaintzen duguna berriz ondorengoa da; tuper handienengatik 120 euro, ertainengatik 70 euro eta txikienengatik 25 euro. Hori izango da beraz hornitzaileei ordainduko dieguna tuper bakoitzeko.

Horretaz gain, beste gastu bat ere izango dugu. Izan ere, bi mugikor eta telefono fijo bat kontratatuko ditugu eta horiengatik urtero 840 euro ordainduko dizkiogu Telefonicari.

Gainera, enpresan beharrezko baliabideak izan ditzagun, bakoitzak bere **aportazioak** egingo ditu; ordenagailua, autoa, etab.

Ikerkuntza, Garapen eta Berrikuntzan espezializatuta dagoen enpresa batekin harremana izango dugu, gure produktuan berrikuntzak sartu ahal izateko. Enpresa horri, 5000 euro ordainduko dizkiogu.

Honekin lotuta, aurretik esan dugun moduan, Abaltzisketako udaletxeak LogikaLine enpresa dela eta, bertan erabiltzen ez den bulego bat utziko digu. Horrez gain, gazteak izateagatik eta gutako bi herri bertakoak izateagatik, 3000 euroko diru laguntza jasoko dugu. Beraz, **laguntza publikoa** eskainiko digute.

Gastu guzti horiek kontuan izanda, eta enpresa berri bat sortuko dugula kontuan izanda, **mailegu** bat eskatu beharko diogu bankuari (Kutxabank) bi urte barru itzultzeko asmotan, epe luzera beraz. Izan ere, gazteak gara eta ez dugu lanik egiten, beraz diru kopuru txikia jarriko dugu hasiera batean. Zehazki, bakoitzak 5000 euro jarriko ditu, beraz, 126.000 euro eskatuko dizkiogu.